

Prensa oharra

Nota de prensa



Udalak frankismoaren biktimak oroitzeko eta omentzeko lore eskaintza egin du

“Donostiako Oroimen Historikoaren Eguna” irailaren 13an da

Donostiako alkate **Eneko Goiak** eta **Udalbatzak** igandean, hilaren 13an, “Donostiako Oroimen Historikoaren Eguna” dela-eta, frankismoaren biktimak oroitzeko eta omentzeko lore eskaintza egin dute, Dual eskulturaren, gaur goizean. Honela, omenaldia egin nahi izan die 1936ko estatu kolpe frankistaren ondoren eta diktadura garaian askatasun demokratikoak babestu zituztenei.

Donostiako alkateak azpimarratu duenez “ekitaldi honekin lortu nahi duguna da ez ahaztea hiriak urte luzez jasan zuen sufrimendua, askatasunak amaitu eta iluntasun garai baten sartu baikinena”.

“Gure herritar asko ihes egiteaz gain, beste batzuek bizia ere galdu zuten, eta ekitaldi xume honen bidez ondorioak jasan zituzten pertsona horiek guztiak gogoratu nahi ditugu” gorarazi du Goiak